



LAKUABIZKARRA

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA

Familia agurgarriok:

Ohar honen bidez helarazi nahi dizuegu Hezkuntzako Ordezkaritzak eman diguten informazio behinbetiko eta ziurra. Lakua Institutuak —Lehen Hezkuntza bukatzen duten ikasleen erreferentzia-institutua— ezin du matrikula gehiago hartu bere gain datorren irailean bertan. Begi bistan dago, beraz, izugarrizko prebisio falta egon dela kontuan hartuta auzoguneko matrikulazio datu guztiak agerian zeudela. Lehen mailako talde kopurua 10 litzateke. Ordezkaritzan ebatzi da, eraiki behar dituzten institutuko prefabrikatuak operatibo egon arte, Lakuabizkarratik doan ikasleria eta Lakuan matrikula eskaera egin duena, gure eskolan geldituko dela DBHko 1. Mailako ikasketak jarraitzen. Instalazio prefabrikatuak erabiltzeko prest daudenean ikasle horiek Lakua joango lirateke. Aurreikuspenek dioten arabera, hemendik urtebetera izan daiteke aldaketa.

Lau talde horiek gurean hartu ahal izateko hainbat obra egitea behar-beharrezkoa izango da. Horien hasiera ekainaren bigarren hamabostaldirako eman dute. Ondorioz, ikasgela gehienak birkokatu beharko ditugu, lan hori geurea izanik.

Aipatutako ikasleek eskolako bigarren solairua hartuko dute eta Lakua Institutuko instalazioetan egongo balira bezalaxe funtzionatuko dute.

Zuzendaritza Talde honen ustean Hezkuntza Ordezkaritzak helarazi beharko liekela informazio hau bai ikasleei eta bai modu batean edo bestean aldaketak ukitu dituen familia guztiei. Izan ere, Ordezkaritzatik dator erabakia. Era berean, Institututik ere jaso behar izan zenuten, gure ustez, oharren bat edo beste. Baina ikusita inondik ere ez zegoela komunikatzeko asmorik, erabaki dugu zuei helaraztea informazio hau ikasleokin eta euren familiekin dugun loturagatik, beste edozerrengatik baino.

Hori dela eta, sortzen zaizuen edozein zalantza eraman beharko duzue Ordezkaritzara edo Institutura, non informazio guztia daukaten.

Jaso gure agurrik beroena.

Zuzendaritza

Gasteizen, 2020ko ekainaren 3an

Estimadas familias:

Mediante esta nota queremos haceros partícipes de la información que, de manera segura y fidedigna, nos ha trasladado la Delegación de Educación. El IES Lakua —centro de referencia para nuestro alumnado al terminar la etapa de Enseñanza Primaria— se ve en la imposibilidad de acoger más matrícula para el próximo septiembre. De ello se infiere que ha habido una clara falta de previsión, toda vez que los datos de matrícula en todo el barrio eran bien conocidos. El número de grupos de 1º sería de 10. En Delegación se ha determinado que, en tanto no estén habilitados los prefabricados que irán en el Instituto, el alumnado procedente de Lakuabizkarra que haya solicitado matrícula en IES Lakua continúe sus estudios de 1º curso de Secundaria en esta escuela. En el momento en que las instalaciones del prefabricado puedan usarse dicho alumnado pasaría a hacer uso de ellas. Se prevé que pueda ser dentro de un año, pero no se ha fijado ninguna fecha para el traslado. Para seguir acogiendo esos 4 grupos es necesario llevar a cabo ciertas obras, cuyo comienzo está previsto para la segunda quincena del presente mes. Como consecuencia, se impone la reubicación de la mayor parte de las aulas, cuestión esta que nos toca de lleno.

El alumnado acogido ocupará el 2º piso de la escuela y funcionarán en todo como si estuvieran en las instalaciones del IES Lakua.

Esta Dirección entiende que, dado que la decisión y gestión son suyas, corresponde a Delegación notificar este cambio a todas las familias afectadas. También deberíais haber recibido alguna información por parte del Instituto, creemos.

Viendo que no había ningún movimiento en ese sentido, hemos decidido poner todo esto en vuestro conocimiento atendiendo al vínculo que nos une con este alumnado y sus familias, antes que por obligación.

Por esa razón, cualquier duda que tengáis deberéis plantearla en Delegación o en el Instituto, donde poseen toda la información.

Recibid un caluroso saludo de nuestra parte.

La Dirección

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de junio de 2020